

EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMA BIRPLANTEATZEKO GARAIA DA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO TOPAGUNEAREN AURKEZPENA

NORTZUK GARA?

Hezkuntza sistema publikoaren alde egitea helburu duen EAE mailako ekimena da **Euskal Eskola Publikoaz harro topagunea**. Hezkuntza publikoaren aldeko hainbat pertsona, plataforma eta eragile batzen ditu eta pasa den ikasturtean burutako *Euskal Eskola Publikoaz Harro* kanpainaren ondorioa da. 150 ikastetxek parte hartu zuten kanpaina hartan.

Kide hauek osatzen dugu Topagunea:

Gasteizko, Oiongo, Bilboko, Santurtziko, Oarsoaldeako, Astigarragako, Donostialdeako, Lasarte-Oriako plataformak, Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak. Goieskola. EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteak). HEIZE (Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioa). IKASLE SINDIKATUA, IKASLE EKINTZA, GAZTE KOMUNISTAK, IKASLE ABERTZALEAK. STEILAS, LAB, ELA, CCOO.

HELBURUAK

Euskal Eskola Publikoarekiko harrotasuna adierazi eta euskal hezkuntza-sistema osorako eskola bakarra aldarrikatu nahi dugu, herri bezala publikoaren, eskubide kolektiboaren eta gure ume guztientzat aukera-berdintasunaren alde eginez.

Hau da oztopo guztien gaineratik lortzen ari garen Euskal Eskola Publikoa: denontzat eraikia, denona eta guztiontzat, zerbitzu publiko doakoa eta unibertsala eskaintzen duen bakarra. Tinko sinesten dugu hezkuntza publikoaren balioan, hezkuntza inklusiboa, euskalduna eta laikoa, aniztasunean eta hezkidetzan konprometitua, berdintasunean eta kalitatean oinarritutakoa, ikasle guztien hezkuntza integrala eta gizarte-koherentsia bermatzen dituen.

1. Euskal Eskola Publikoaren balioa azpimarratu eta euskal gizarteak berarekiko duen atxikimendua handitzea. Euskal Eskola Publikoa **hezkuntza sistemaren ardatzean jarriz**, bere alde borrokatu eta bere printzipioak lau haizetara zabaltzea.
- 2.- Eskola Publikoak behar dituen **baliabideak bermatzea** eta tokian tokiko **oztopo eta diskriminazioak salatzea**.

3.- Hezkuntza **sistemaren pribatizazioaren aurka** egitea, gaur egungo sistema duala eta sistema horren atzean dauden itunak salatuz. Pribatizazio dinamika eteteko Eusko Jaurlaritzak **ikastetxeen publifikazioa** ahalbideratuko lukeen araudia sortzea aldarrikatzea.


4.- **EA**erako balizko Hezkuntza Legearen inguruko hausnarketa **zabaltzea** ikuspuntu jantzi eta kritiko batetik eztabaidatu ahal izateko.

Helburu hauek helmuga izanik, Euskal Herriak nahi eta behar duen Eskola Publikoa eraikitzen jarraituko dugu, egindako ibilbide oparoan sakonduz, egunero eskola publiko hobea eraikiz herri hobea eraikitzen dugulako. Egin dugun bidez harro, administrazioen oztopoen aurrean tinko eta aurrera begira ilusioz lan egingo dugu.

EAEko HEZKUNTZA SISTEMAREN DATU BATZUK

ITURRIA: Euskadiko Eskola Kontseiluaren “Euskadiko hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena 2017/2019”


- 1- EAEn, sare publikoak ikasleen %51 eskolaratzen du. **Europa mailan, sare itundu-pribatu gehien duen hirugarren lurraldea da.**



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Hoziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

2- **Sareak ez dira berdinak** eta alde handia dago bien artean ikasle motari dagokionez:

- **Maila sozio-ekonomiko baxuena** duten ikasleak sare publikoan daude.




- Jantokiko **beken kopurua** bikoitza da sare publikoan: Haur Hezkuntza publikoan ikasleen %28,1 bekadunak dira eta itunpeko-pribatuak diren ikastetxeetan %10,2. Lehen Hezkuntza publikoan %34,5 bekadunak dira, eta itunpekoan %12,5; DBHn %16,8 publikoan eta %8,9-itunpekoan.

1.6.4.- Jangelako ikasle bekadunen ehunekoa ikasle guztizkoarekin aldarretuta , etapan eta sareen arabera. 2018-19 ikastaroa (HBrik gabe, 2 urtetik aurrera)


	Haur Hezkuntza			Lehen Hezkuntza			DBH		
	Bekadunak	Guztira*	%	Bekadunak	Guztira	%	Bekadunak	Guztira	%
Publikoa	11.082	39.465	28,1	23.442	67.887	34,5	6.600	39.193	16,8
Pribatua	3.696	36.067	10,2	7.882	63.170	12,5	4069	45.949	8,9
Guztira	14.778	75.532	19,6	31.324	131.057	23,9	10.669	85.142	12,5

*2 urte eta 6 urte bitarteko ikasleak




- **Jatorri atzerritarreko ikasleak:** horien % 67a sare publikoan eskolaratzen da, %33a itundu-pribatuan.

1.5.7 Atzerriko ikasleen ehunekoa, etapan eta sareen arabera. 2018-19



- **Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen %63a sare publikoan dago eta %37a itunpeko-pribatuan.**

1.4.5.- HPBE dituzten ikasleen bilakaera, sareen eta etapan arabera, 2018tik-2019ra



	Haur H.	Lehen H	DBH	ESPO	Guztira
Publikoa	2.309	6.993	3.271	1.386	13.959
Pribatua	1.311	3.975	2.767	1.400	9.453

3- Ikastetxe pribatuetako hezkuntza-itunak

Hezkuntza-itunen araudiak biltzen dituen baldintza batzuk ez dira inoiz bete EAEn, besteak beste: derrigorrezko etapak baino ez dira itundu behar; itunpeko ikastetxeek ez dute kuotarik kobratuko; itunak ezartzean, egoera sozio-ekonomiko kaltegarrian dauden ikasleak eskolaratzen dituzten ikastetxe pribatuek izango dute lehentasuna.

Horretaz gain, azken 4 urteetan **gela itunduen kopurua %4,6 jaitsi den arren, bere finantzazioak %12,95 egin du gora.**

Datu hauek erakusten digute nolakoa den EAEko hezkuntza sistema duala: desorekatua, diskriminatzailea eta segregatzailea.

HEZKUNTZA POLITIKA ERALDATU BEHAR DA

Aurreko atalean ikusi dugunez, familien **balizko aukeratzeko askatasuna herri-kohesioaren, hezkuntza-kalitatearen eta inklusibitatearen gainetik jartzeak ondorio kaltegarriak ditu** gaur egun, eta etorkizuneko jendartean ere izango ditu.

Horren adibide, azken urteetan salatu ditugun hainbat kasu: Ordizia, Gasteiz, Debagoiena, Bilbo, Oion, Santurtzi, Oarsoaldea...


Eusko Jaurlaritzak orain arte aurkeztutako ekimenak, gainera, partxe bat baino ez dira izan eta ez dute egoera hau konpondu: *"2016-2020ko eskola inklusiboaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana"*; *"Atzerritar jatorriko ikasleak eskolatzea EAEko eskola-sisteman"*; *Hamaika Esku* programa; *Magnet Erakarri...* Ikasleen aniztasunaren trataerari era integralean erantzungo dion sistema da behar duguna, sistemak sortzen dituen arazo estrukturaleri erantzungo diena.

LOMLOEren harira EAEko Hezkuntza Sailburuak egindako azken adierazpenak ere, kezkarriak dira, ez duelako asmorik azaltzen familien aukeraketan oinarritutako hezkuntza sistema aldatzeko.

ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO. ANIZTASUNAZ HARRO. JENDARTEAREN AURREIRITZIAK ALDATZERA GATOZ

ESKOLA PUBLIKOAREN BALIOA AZPIMARRATU

Eskola Publikoak kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzen die hiritar guztiei, euskararen normaltasuna lortzeko tresna garrantzitsuena da. Eskola Publikoak D ereduaren bidez ekarpen handiena egin dio gure herriaren euskalduntzeari; izan ere sare publikoan ia ikasle guztiak daude D ereduan. Horrek ez gaitu asetzen, orokorrean euskara maila hobetu behar da, eta sare pribatuak ditu sistema osoaren ikasleen %17 A ereduan, eta heren bat B ereduan, horregatik, egun, hizkuntza ereduak gainditu eta murgiltze ereduan oinarritutako hezkuntza eredu bakarria ezartzeko beharra dugu sistema osoan, eredu horren bidez, ikasle euskaldun eleanitzak hezteko helburuarekin. HHko datuak:



USTE FALTSUEN INGURUAN

Ikerketen arabera, ikasle bakoitzaren emaitza akademikoetan eragina du bere egoera sozioekonomikoak, baina ez du eraginik inguruko ikasleengan, hau da, **desabantaila-egoeran dauden ikasleen emaitza baxuak ez dira "kutsatzen" egoera sozioekonomiko hobean dauden ikasleen artean.** Ikasgelan haur immigranteak edo egoera ekonomiko kaskarragoan bizi direnak izateak ez du kolokan jartzen gainerakoen garapena.

Kontrakoa, berriz, bai gertatzen da: **desabantaila-egoeran dauden ikasleek emaitza kaskarragoak lortuko dituzte beren ikastetxeko ikasle guztiak edo gehienak egoera zailean baldin badaude;** aldiz, emaitza hobekiak lortuko dituzte aniztasun sozioekonomikoa dagoen ikastetxeetan, eta horrek, gainera, ez die kalterik egingo abantaila-egoeran dauden ikasleei. ("Hezkuntza interkultural eta inklusiboa. Zenbait gako" Amelia Barquín. HUHEZI, MU. 2020).

Ostera, guztiek irabaziko lukete. Segregazioaren fenomenoak "ondorioak dakartza kohesio sozialean, desberdinen arteko harremanen defizita dakarren heinean: bizikidetzaz ikasteko eta gaitasun interkulturalak garatzeko aukera galtzen da horretarako esparrurik egokienean, hau da, eskola-esparruan."

("Hezkuntza interkultural eta inklusiboa. Zenbait gako" Amelia Barquín. HUHEZI, MU. 2020).

Ez dezagun segregazioaren fokoa Eskola Publikoan jarri, ez eta beraren hezkuntza komunitatearen parte garen ikasle, langile eta familietan, **gu baikara, geure inplikazioarekin, eskola-segregazioaren kudeaketa bizkar gainean daramagunak. Arazoa estrukturala da eta egoera hau betikotzen dutenengan dago konpontzeko ardura.**

HEZKUNTZA SISTEMAK SEGREGAZIOA AREAGOTZEN DU ETA EZ DITU BETETZEN EUSKAL JENDARTEAK ESKATZEN ETA BEHAR DITUEN INKLUSIO HELBURUAK. EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMA HAU BIRPLANTEATZEKO GARAIA DA.

Mila esker gure mezua zabaltzematik.

Toaguneko gaur egungo partaideak:

Gasteizko, Oiongo, Bilboko, Santurtziko, Oarsoaldeko, Astigarraga, Donostialdea, Lasarte-Oriako plataformak, Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak.

**EHIGE, HEIZE, GOIESKOLA,
IKASLE SINDIKATUA, IKASLE EKINTZA, GAZTE KOMUNISTAK, IKASLE
ABERTZALEAK,
STEILAS, LAB, ELA, CCOO**

Donostia, 2020ko abenduak 14